Testu akademikoak



Helburuak

- Mota desberdinetako testu akademikoak ezagutzea
- Lan akademikoentzat egokiak izan daitezkeen izenburuen ezaugarriak identifikatzea

Testu akademiko motak eta haien ezaugarriak



Testu akademikoak identifikatzen (I)

Hauek testu akademikoak al dira?
Zergatik?

Testu akademikoak identifikatzen (II)

Hauetatik zein dira genero akademikoak?

biltzarreko aktak	aldizkari dibulgatzaileak	tesiak	entziklopedia baten sarrera
dokumentu ofizialak	Gradu Amaierako Lanak	berriak	liburuak
eskutitz formala	sarrerak (hiztegietan)	artikulu zientifikoak	Master Amaierako Lana

Testu akademikoak identifikatzen (III)

biltzarreko aktak	aldizkari dibulgatzaileak	tesiak	entziklopedia baten sarrera
dokumentu ofizialak	Gradu Amaierako Lanak	berriak	Liburuak*
eskutitz formala	sarrerak (hiztegietan)	artikulu zientifikoak	Master Amaierako Lana

*Liburuak fikziozkoak direnean, ez dira akademikoak. Zientzia liburu gehienak (dibulgatiboak ez badira) akademikoen barnean sailkatzen dira.

Testu akademikoak identifikatzen (IV)

Bost laguneko taldetan bildu eta erantzun galderak

Egokitu zaizuen dokumentua zein genero akademikori dagokio? Zergatik?

1. **Biltzarreko akta**
2. **Artikulu zientifikoa**
3. **Tesia**
4. **Gradu Amaierako Lana**

Testu akademikoak identifikatzen (V): testuen azpigeneroa

1. **Biltzarreko akta:**
    1. "Aniztasunak"
    2. "Hezkuntza-sistema merkataritza-gai bihurtzea"
2. **Artikulu zientifikoa**
    1. "Irakurketa ohiturak literatur sisteman: generoa diagnostikatzeko eremu interesgarria"
    2. "Hezkuntza inklusiboaren deia, premia eta inplikazioa"
3. **Tesia**
    1. *Komunikazio gaitasunaren ebaluazioa ingurune birtualetan goi-mailako irakaskuntzan*
    2. *Análisis de narraciones infantiles para niños de 6-12 años, escritas en castellano entre 1990-1998.*
4. **Gradu Amaierako Lana**
    1. "Zer hizkuntza eredu gure eskoletan eta zergatik?"
    2. "Ohartzen al gara irakurtzen dugunaz?"

Testu akademikoak identifikatzen (VI): azpigeneroen ezaugarriak

Biltzarretako aktak	Artikulu zientifikoak
1. **Luzera:** lan bakoitzak 6-8 orrialde bitarte 2. **Non argitaratzen da:** liburu formatuan 3. **Nori zuzenduta dago:** komunitate zientifikoari	1. **Luzera:** 20 orrialde inguru 2. **Non argitaratzen da:** aldizkari zientifikoetan 3. **Nori zuzenduta dago:** komunitate zientifikoari
Gradu Amaierako Lanak	**Tesiak**
1. **Luzera:** 25-45 orrialde bitarte (unibertsitate araudiaren arabera) 2. **Non argitaratzen da:** unibertsitateko biltegian 3. **Nori zuzenduta dago:** komunitate zientifikoari	1. **Luzera:** 200 orrialdetik gora 2. **Non argitaratzen da:** unibertsitateko bilteian 3. **Nori zuzenduta dago:** komunitate zientifikoari

TESTU AKADEMIKOEN IZENBURUA

Testu akademikoen izenburua (I)

Izenburu hauek egokiak iruditzen al zaizkizue?
Zergatik?

1. «6 urteko haurrei ortografia irakasteko metodoa»
2. «Dislexia»
3. «Hizkuntzaz nola jabetzen diren eta tarte-hizkuntza Haur Hezkuntzako haurren kasuan»
4. «HB1B-ko ikasleen ezaugarriak»

Hezkuntza irakasmailetako siglak HEMEN
HB1B: Hezkuntza Berezia 1 (integratua) DBH

Testu akademikoen izenburua (II)

1. «6 urteko haurrei ortografia irakasteko metodoa» 
2. «Dislexia» orokorra
3. «Hizkuntzaz nola jabetzen diren eta tarte-hizkuntza Haur Hezkuntzako haurren kasuan» Aditz jokatua 
4. «HB1B-ko ikasleen ezaugarriak» siglak

Testu akademikoen izenburua (III)

Binaka Bildu eta erantzun galderari 10'

Zeintzuk dira lan akademikoen izenburuen ezaugarriak?


Lan akademikoentzat egokiak izan daitezkeen izenburuen adibideak:

- ✓ «0-2 urteko haurren eskolatzea. Egokitzea ala etxekotzea?»
- ✓ «Haur sexualitatea eta hezkuntza sexuala Haur hezkuntzako bigarren zikloan lantzearen interesa»
- ✓ «Familia eredu berriak Haur Hezkuntzan. Ikastetxe konfesional baten analisia»
- ✓ «Zaintzen garrantzia Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan»
- ✓ «Sozializazioaren hastapenak lehenengo haurtzaroan: 1-2 urteko haurren arteko harremanen behaketa jolas librean»
- ✓ «Ikas komunitatea Haur Hezkuntzan: konpetentzien garapena Talentuz proiektuan»
- ✓ «Musika Haur Hezkuntzan: talde ekimenerako bidea»

Testu akademikoen izenburua (IV)

Lan akademikoen izenbururen ezaugarriak:

- Luzera: 8-12 hitz
- Gaia eta testuingurua aurkezten dute
- Metodologia edo ikerketa mota aurkeztu dezakete
- Ez dira aditz jokatuak erabiltzen
- Laburdurarik eta sinbolorik gabe
- Zehatzak dira



Izenburuetan hitzak ordenatzen

- oinarritutako praktikak / hausnarketa partekatuan / practicumean / egoera errealen / irakasleen prestakuntzako / azterketa
  Ordena zuzena

- azterketa / ahozkotasunaren balio / Koldo Amestoy / pragmatikoa / ipuin kontaketan / kontalariaren / zenbait ipuinen
  Ordena zuzena

- zubi / hezkuntza jardunbideen / eta / bilakaeraren / gizarte justuagoen / Hezkuntza eta Eskola / arteko
  Ordena zuzena

- kanpo espazioan / diseinuaren kalitatea / haurraren / jolasa / eta / berrikuntza / Haur Hezkuntzako /
  Ordena zuzena

- marketin arloan / oinarritutako / ikaskuntza aktiboan / eredu baten / aplikazioa
  Ordena zuzena

- Unibertsitateko irakasleen / baterantz / azterketa / profesionalizazio / teorikoa
  Ordena zuzena

Izenburuak ordena zuzenean:

- ✓ Hausnarketa partekatuan oinarritutako praktikak: egoera errealen azterketa irakasleen prestakuntzako practicumean
- ✓ Ahozkotasunaren balio pragmatikoa ipuin kontaketan. Koldo Amestoy kontalariaren zenbait ipuinen azterketa
- ✓ Hezkuntza eta Eskola: hezkuntza jardunbideen eta gizarte justuagoen bilakaeraren arteko zubi
- ✓ Berrikuntza Haur Hezkuntzako kanpo espazioan: diseinuaren kalitatea eta haurraren jolasa
- ✓ Ikaskuntza aktiboan oinarritutako eredu baten aplikazioa marketin arloan
- ✓ Unibertsitateko irakasleen profesionalizazio baterantz: azterketa teorikoa